



ONDARROAKO UDALA

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO.

UDAL ARAUDIA ONDARROA.

I. ATALBURUA.

XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Euskara, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza eta haren nortasun ezaugarri nagusia den aldetik, Ondarroako herritarren eta udalerrri honen ondare kulturalaren ukazinezko atala da.

2. artikulua.

Euskara, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetariko bat, Ondarroako udalerrriaren eta Ondarroako udal administrazioaren hizkuntza ofiziala da.

3. artikulua.

Euskararen erabilerari dagokionez, Ondarroako Udala eta haren menpeko organo eta erakundeak xedapenei lotuko zaizkie indarreko legeriari eta araudi honetako, barne jardunbidean nahiz administratuekiko hartu-emanetan edo udalerrriko ekimenetan.

Era berean, hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez -batik bat, euskararen erabilerari dagokionez-, udal zerbitzuak betetzen dituzten enpresek men egingo diote indarreko lege orokorrek eta araudi honek xedatzen dutenari, udalaren zerbitzua betetzean administrazioarekin nahiz herritarrekin sortzen diren harreman guztietan.

4. artikulua.

Euskaraz bizi edo jardun nahi duten herritarren hizkuntz eskubide eta aukeraketa errespetatu eta, aldi berean, udalerrriko esparru guztietan euskararen berreskurapena eta normalizazioa areagotzeko, Ondarroako Udalak euskararen aldeko hizkuntz politika sustatu, zehaztu eta garatuko du.

5. artikulua.

Ondarroako Udalak eremu bereizi biren arabera zehaztu, antolatu eta gauzatuko du bere hizkuntza politika: udal administrazioa eta udalerrria. Udalak eremu bakoitzeko helburu, neurri, erritmo eta baliabiderik egokienak finkatuko ditu, hizkuntz egoera eta beharrianak aztertu ostean.

II. ATALBURUA.



ONDARROAKO UDALA

## EUSKARAREN NORMALIZAZIOA UDAL.

### ADMINISTRAZIOAN.

#### 6. artikulua.

Euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duen indarreko legeriari jarraituz, Ondarroako Udalaren administrazioko hizkuntz normalizazio prozesuaren hiru oinarri nagusiak honakoak izango dira: administrazio egintza eta harremanen eskaintza euskaraz bermatzea, lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak esleitzea, eta euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta garatzea.

#### 2.1. Administrazio egintzak eta jarduerak.

#### 7. artikulua.

86/1997 Dekretuarekin bat, euskarak izan behar du Ondarroako udal administrazioaren zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza. Beraz, administratuei zuzenduriko edo administratuekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz -eta, hala badagokio, gaztelaniaz ere- eskaini eta burutu beharko dira.

#### 2.1.1. Udalaren idazkun, errotulu eta seinaleak.

#### 8. artikulua.

Ondarroako Udalaren arlo, sail, bulego eta lanleketan ikusten eta erabiltzen diren idazkun guztiak euskaraz agertuko dira:

- a) Bulego eta langoletako errotuluak eta bestelako adieazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzeko tresnak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkunak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.

#### 9. artikulua.

Kale eta auzoen izenak agertzen dituzten plakak, trafiko seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak



## ONDARROAKO UDALA

eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiak euskaraz, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauetara jaramon eginez.

Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera-arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari.

Era berean, hirigintza proiektu berrien ondorioz gerta daiteke hiri eta landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoei izen ofiziala ezarri behar izatea; halakoetan ere, udalak irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari.

### 2.1.2. Udal erregistroko agiriak.

#### 10. artikulua.

Udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak euskaraz inskribatuko dira udal erregistroan, eta hala egingo da aplikazio informatikoaren bidez ere.

#### 11. artikulua.

Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta bestelako agiriak euskaraz -eta, hala badagokio, ele bietan- idatziko dira.

### 2.1.3. Administratuekiko harremanak.

#### 12. artikulua.

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Ondarroako Udalak honako oinarrizko hizkuntz eskubideok aintzatesten dizkie bere administratuei:

a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.

b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

c) Udalaren osoko bilkura eta batzarretan euskaraz egiteko eskubidea.

d) Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen ikasketak euskaraz egiteko eskubidea.

#### 13. artikulua.



## ONDARROAKO UDALA

Euskaraz egingo dira, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan daukaten pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdun pribatuek beren beregi Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bakarrean jasotzea hautatzen badute, honela jokatu da: euskaraz eskatuz gero, euskaraz egingo zaio, eta, gaztelaniaz eskatuz gero, ele bietan.

### 14. artikulua.

Ondarroako Udalak ontzat hartu beharko ditu pertsona fisikoengandik eta juridiko pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

### 15. artikulua.

Inprimaki guztiak euskaraz eskainiko dira, eta hala eskatzen duenari ele bietan ere bai.

#### 2.1.4. Instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanak.

### 16. artikulua.

Ondarroako Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei.

Halaber, euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialek nahiz administrazio publikoek igorritako dokumentazioa gaztelania hutsean jasoko balitz, udalak agiri horiek itzuli eta euskaraz idatzita bidaltzeko prozedura jar lezake abian.

#### 2.1.5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak.

### 17. artikulua.

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak, edozein motatako ebazpen eta erabakiak, iragarkiak eta, oro har, jendaurreko argitalpen guztiak euskaraz argitaratuko dira -eta, hala badagokio, gaztelaniaz ere; proportzio honetan: euskarazkoetan, letren tamaina hiru puntu handiagokoa izango da gaztelaniazkoa baino, eta entzuteko mezuak badira, berriz, euskaraz gaztelaniaz halako hiru adieraziko dira-. Bestalde, udalaren web orri, aldizkari, berripaper, gida eta antzeko argitalpenak euskaraz edo ele bietan egingo dira.

#### 2.1.6. Batzarrak eta aktak.

### 18. artikulua.



## ONDARROAKO UDALA

Ondarroako Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeen batzarretan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezten.

19. Ondarroako Udalaren osoko bilkuretarako nahiz artikulua. gobernu batzordeetarako deialdiak eta aktak euskaraz edo ele bietan argitaratuko dira.

20. artikulua.

Udalaren informazio batzordeetarako deialdiak eta aktak euskaraz edo ele bietan idatziko dira.

2.2. Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea .

2.2.1. Langileen euskalduntzea eta trebakuntza.

21. artikulua.

Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta 86/1997 Dekretuak xedatutakoa betez, Ondarroako Udalak taxuzko neurriak hartuko ditu bere zerbitzuplean lan egiten duten pertsonen euskaraz jarduteko gaitasun egokia lor dezaten. Horretarako, udalak langileen euskalduntzea eta trebakuntza bultzatu eta erraztuko ditu.

2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak.

22. artikulua.

86/1997 Dekretuak araututakoarekin bat, Ondarroako udal administrazioko lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna esleituko zaio eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere bai, betiere dekretu horrek ezarritakoekin bat.

Lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak udalak urteko aurrekontuekin batera eman beharreko lanpostu zerrendako zehaztapenetan ageriko dira.

2.2.3. Udalaren euskarazko atalak eta udalaren euskara plana.

23. artikulua.

86/1997 Dekretuari jarraituz, Ondarroako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu zuen



## ONDARROAKO UDALA

2001eko maiatzaren 31n. Plan horren garapena izango da hizkuntzaren normalizaziorako tresna. Modu berean, administrazio atalen sailkapena egin eta, erakundearen hizkuntz helburuen arabera, administrazioaren euskarazko atalak plan horrek berak izendatuak ditu.

### 2.2.4. Udal langileen eta zerbitzuen kontratazioa.

#### 24. artikulua.

Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Ondarroako Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari. Horrela bada, 86/1997 Dekretuan ezarritako jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan, atal orokorretan eta atal berezietan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharko da aldezturik.

#### 25. artikulua.

Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, udalak salbuespen modura erabaki lezake atal berezietako lanpostuei derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ez ezartzea. Horrela, lanpostuari derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezartzea erabaki ezean, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

- 1. HE eta 2. HE: %10; 3. HE eta 4. HE: %20 .

#### 26. artikulua.

Aldi baterako lanak egiteko lan-kontratuko beharginak aukeratzeko deialdietan, euskaraz jakitea eskatuko da, betiere ordenantza honetako 24 eta 25. artikuluetan ezarritakoari nahiz 86/1997 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian finkatutakoari jarraituz.

Gerta daiteke hirugarren batek zerbitzuak eman behar izatea udalaren ordeztu, eta horietan herritar edo erabiltzaileekin zuzeneko hartu-emanak eduki behar izatea. Halakoetan, zerbitzu-emaileak bete beharko ditu udalari dagozkion eta araudi honetan ezarritako hizkuntza-beharkizun berberak, eta hala jasoko da beren beregi administrazio-klausula berezien pleguan.

#### 27. artikulua.

HAEEK kasuan-kasuan erabakiko du euskarari buruzko ebaluazio-proben era eta edukia zelakoak izango diren.

## III. ATALBURUA.

### EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN.



## ONDARROAKO UDALA

### 28. artikulua.

Ondarroako Udalak beharrezko neurri eta bitartekoak jarriko ditu udalerrian euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala bultzatu eta lortzeko.

### 29. artikulua.

Ondarroako euskaldunen kopurua %70etik %100era bitartekoa izanik, esparru guzti-guztiak lehenetsi behar dira euskararen normalizazioan. Ingurumari horretan, udalak ahaleginak egingo ditu ondoko helburuak beren berez jorratzeko:

1. Euskara ondorengoetaratzea.
2. Euskararen erabilera ziurtatzea herriko esparru guzti-guztietan, eta.
3. Euskararen kalitatea bermatzea.

### 30. artikulua.

Goiko artikuluan zehaztutako helburuak modurik sistematizatu eta eraginkorrean lortu ahal izateko, Ondarroako Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu, onartu eta garatuko du, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko D ereduaren jarduera-lerroei jarraituz.

### 31. artikulua.

Ondarroako Udalaren udalerrri mailako plan estrategikoak berebiziko garrantzia emango die Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak euskaldun kopuru handiko udalerrientzat lehenesten dituen gizarteko jardun esparruei. Hala, Ondarroako Udalak, hamalau esparrutan gauzatuko du bere hizkuntza-politika: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, familian, administrazioan, teknologia berrietan, lan munduan, aisian, kirolean, erlijioan, euskararen corpusean, komunikabideetan, liburugintzan, publizitatean eta kulturgintzan

## IV. ATALBURUA.

### UDALAREN AZPIEGITURA.

### 32. artikulua.

Araudi hau modurik eraginkorrean gauzatu eta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta abian jartzeko, Ondarroako Udalaren barne organigrama honelaxe era daiteke: euskara zinegotzigoa, euskara batzordea eta euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak:



## ONDARROAKO UDALA

Euskara zinegotzigoa da euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den antolakunde politikoa. Bi zeregin nagusi izan behar ditu: batetik, udalak hizkuntz politikaz hitzartutako akordioak, hartutako erabakiak eta onartutako planak aditzera eman eta betearaztea, eta, bestetik, euskara batzordea dinamizatu eta bizkortzea.

Euskara batzordea hainbat gizarte esparrutan euskararen normalizazioaren alde diharduten pertsonak, taldeek, elkarteek, gizarte-erakundeek eta ikastetxeek osatu behar dute. Beraren egiteko nagusia ondokoa izango da: euskararen normalizazio eta sustapenari dagozkion arlokako egitasmoak eta plangintzak zelan ezarri, zelan koordinatu eta zelan hobetu proposatu eta adostea. Euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak, jendaurreko administrazio egintza eta jarduerak hizkuntza ofizial bietan agertzeko behar diren itzulpen eta testu-zuzenketekin arduratzeaz gain, administrazio nahiz udalerrri eremuetan udalak planifikatutako hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, gauzatu eta balioztatu beharko ditu. Orobat, euskara zerbitzua udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, hala soziolinguistikoetan nola estandarizazio prozesukoetan.

## V. ATALBURUA.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK.

#### 33. artikulua.

Udalak etorkizunean ematen dituen ebazpenek eta udal arlo edo organoek abian ipintzen dituzten egitasmoek errespetatu beharko dituzte araudi honetan jasotako manuak. Euskara arloko kargudun politikoa arduratuko da udal sail eta zerbitzu guztiei araudi honen indarrean jartzea jakinarazteaz, araudiaren xedapenei buruzko argibideak emateaz eta hizkuntz normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ulertarazteaz.

#### 34. artikulua.

Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jarri eta bost urteren buruan udalak haren berrikuspen orokorra egingo du: emaitzak aztertu eta, beharrezkotzat joz gero, komenigarri diren aldaketak proposatuko ditu.

Dena dela, berrikuspena lehenago egin liteke, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoan aldaketak gertatuko balira, baita udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handikoa izan litekeen beste edozein ziogatik ere.

## VI. ATALBURUA.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA.



ONDARROAKO UDALA

35. artikulua.

Berez indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak.

VII. ATALBURUA.

AZKEN XEDAPENA.

36. artikulua.

Araudi hau indarrean jartzen den unetik bertatik Ondarroako Udalak eskumena izango du xedapenok ezarri eta garatze aldera beharrezkoak diren arau, erabaki edo egitarau bereziak manatu eta sustatzeko.